

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2159/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru-agindu horren bidez, lanaren etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onesten da.**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua-  
ren bidez, lanaren etekinak, jarduera ekonomikoen etekinak eta sariak direla-eta Per-  
sona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egin behar diren atxikipenen eta konturako  
sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onetsi zen.

Informazio-aitorpen horren edukia azken aldaketa arauemaileetara egokitzeko eta,  
oro bat, zenbait erreferentzia eguneratu eta hobekuntza teknikoak ezartzeko, aldaketa  
batzuk egin behar dira 190 eredia ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euska-  
rriaren diseinu fisiko eta logikoetan, zeinak aipatutako foru-agindua II. eranskinean  
jasotzen baitira. Arestian azaldutakoagatik, eta zerga-arloko ahalik eta informazio zeha-  
tzena edukitzea komeni dela kontuan hartuta, justifikatuta dago une honetan abendua-  
ren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzea; zehazki «AZPIGAKOA» eremuaren edukia  
aldatu nahi da, azpigako batzuk berridatzi, eta «L» gakoan (salbuetsitako errentak) az-  
pigako berriak sartu.

Bestalde, amatasun- eta aitatasun-prestazioei buruzko erreferentziak eguneratu dira.  
Erreferentziok, aurrerantzean, adingabearen jaiotza eta zaintzagatiko prestazioei eta  
bularreko haurraren zaintzako erantzunkidetasunagatiko prestazioei buruzkoak izango  
dira, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko VI. eta VII.  
kapituluetan gaur egun ezarrita dagoen erregulazioarekin bat etorritz; erregulazio hori  
martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak (enplegu eta lanaren arloan emaku-  
meen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriena)  
sartutako aldaketan ondu da.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa,  
Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i)  
artikuluak emandako ahalmena erabiliz, hau

**XEDATZEN DUT:**

**Artikulu Bakarra.—***Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzea; haren bidez, lanaren etekin, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onesten da*

Honako aldaketa hauek egiten dira Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abendu-  
aren 11ko 2190/2017 Foru Agindua (haren bidez, lanaren etekinen, jarduera eko-  
nomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko labur-  
penaren 190 eredia onesten da) II. eranskineko 190 eredia ordenagailuz zuzenean  
irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoetan:

*Bat.* Aldatu egiten da 2 motako erregistroaren (hartukizunaren erregistroa) 79-80  
posizioei dagokien «Azpigakoa» eremuaren edukia; ondorioz, berridatzi egiten dira 08,  
22, 27 eta 28 azpigakoak, 24, 29 eta 30 azpigako berriak sartu, eta 43 azpigakoa kendu,  
L gakoari dagozkion hartukizunetan erabili beharreko azpigakoen barruan. Hauek dira  
aldaketak:

«08 Prestazio, pentsio eta hartzeko pasibo salbuetsiak (PFEZari buruzko Foru  
Arauaren 9. 12 artikuluan ezarritakoa dela-bide salbuetsiak); azpigako hone-



tan ez dira sartuko jaiotza eta adingabearen zaintzagarriko eta bularreko haurraren zaintzako erantzukidetasunagarriko prestazioak, 27 azpigakoan jarri adierazi behar badira.»

«22 Lurralde-administrazio publikoek emandako laguntza ekonomikoak, baldin eta PFEZari buruzko Foru Arauaren 9. artikularen 27. zenbakian eta Zergari buruzko Araudiaren 12. artikuluan ezarritakoa dela-bide salbuetsita badaude, gizarteratzeko gutxieneko errenta dela-eta administrazio publikoek ezarritako prestazio ekonomikoak sartu gabe, horiek 28 azpigakoan adieraziko baitira.»

«24 Gauzazko lan-etekintzat hartzen ez diren errentak, PFEZari buruzko Foru Arauaren 17. artikuluko 2. apartatuan araututakoak.»

«27 Adingabearen jaiotza eta zaintzagarriko eta bularreko haurraren zaintzako erantzukidetasunagarriko prestazioak, PFEZetik salbuetsitakoak.

28 Administrazio publikoek gizarteratzeko gutxieneko errenta gisa ezarritako prestazio ekonomikoak, halakorik ez duten pertsonen bizirauteko baliabide ekonomikoak bermatzeko direnak; azpigako honetan ez dira sartuko 22 azpigakoan adierazi behar diren gainerako laguntza salbuetsiak.

29 Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoak, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuak ezarritakoa dela-bide jasotakoak.

30 Beste errenta salbuetsi batzuk. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan salbuetsita egonik 190 erduan aitortu behar diren errentak azpigako honetan sartu behar dira, baldin eta aurreko azpigakoetan berriaz adierazi ez direnak badira.»

*Bi.* Aldatu egiten da «Lanerako ezintasunaren ondoriozko gauzazko hartukizunak» eremuaren edukia, 2 motako erregistroko (hartukizunaren erregistroa) 282-321 bitarteko posizioak hartzen dituena; honela geratzen da idatzita:

Posizioak	Izaera	Eremuen deskripzioa
282-321	Alfanumerikoa	<p>LANERAKO EZINTASUNAREN ONDORIOZKO GAUZAZKO HARTUKIZUNAK</p> <p>A eta B01 gakoetako hartukizunetarako soilik. Eremu honetan lau azpieremu daude:</p> <p>282 LANERAKO EZINTASUNAREN ONDORIOZKO GAUZAZKO HARTUKIZUNAREN ZEINUA. Eremu hau beteko da baldin eta jasotzaileak ekitaldian hartukizunak itzultzen baditu aurreko ekitaldietan oker jasotako hartukizunak izan direlako edo sobera jaso dituelako.</p> <p>Kasu horretan, «N» bat jarri behar da; beste edozein kasutan, eremu horren edukia zuriune bat izango da.</p> <p>283-295 LANERAKO EZINTASUNAREN ONDORIOZKO GAUZAZKO HARTUKIZUNAREN BALORAZIOA. 13 posizioko zenbakizko eremua. Gizarte Segurantzarekiko lankidetzaren hitzarmena dela-eta enplegatzaileak lanerako ezintasunaren ondoriozko prestazioak ordaintzeko salbuespen gisa gauzazko prestazioak egiten baditu, eremu honetan adieraziko da jasotzaileari dagokion ekitaldian lanerako ezintasunaren ondorioz ordaindutako gauzazko hartukizunen balorazio guztien batura (zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe), konturako sarreraren zenbatekoa inola ere sartu gabe, eta «HARTUKIZUNAREN GAKOA» eremuan «A» gakoa adieraziko da.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>283-293 Balorazioaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>294-295 Balorazioaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>296-308 LANERAKO EZINTASUNAREN ONDORIOZKO GAUZAZKO PRESTAZIOAK DIRELA-ETA EGINIKO KONTURAKO SARRERAK. 13 posizioko zenbakizko eremua. Aurreko eremuan lanerako ezintasuna dela-eta adierazitako gauzazko hartukizunen ondorioz ordaintzaileak eginiko konturako sarreraren urteko zenbatekoa adieraziko da (zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe).</p> <p>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.</p>



Posizioak	Izaera	Eremuen deskripzioa
282-321	Alfanumerikoa	<p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>296-306 Egindako konturako sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>307-308 Egindako konturako sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>309-321 LANERAKO EZINTASUNAREN ONDORIOZKO GAUZAZKO PRESTAZIOAK DIRELA-ETA JASANARAZITAKO KONTURAKO SARRERAK. 13 posizioko zenbakizko eremua. Lanerako ezintasuna dela-eta ordaintzaileak jasotzaileari jasanarazitako gauzazko hartukizunen ondorioz eginiko konturako sarreraren urteko zenbatekoa adieraziko da (zeinurik gabe eta koma hamartarik gabe).</p> <p>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>309-319 Jasanarazitako konturako sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>320-321 Jasanarazitako konturako sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p>

**AZKEN XEDAPENA****Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea**

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2021eko ekitaldiari dagozkion aitorten informatiboak 2022. urtean aurkezteko aplikatuko da, lehenengoz.

Bilbon, 2021eko abenduaren 14an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,  
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ